



MARIA VICTORIA JOARISTI OLARIAGA AND., OIARTZUNGO UDALAREN IDAZKARI BEZALA.

ZIURTATZEN DUT: Udal Osoak 2010eko ekainaren 30ean egindako batzaraldian, ondorengo erabakia hartu zuela, beste batzuen artean:

LARTZABAL ETXADIKO URBANIZAZIO PROIEKTUAN SARTUTAKO LANEN BEHIN BEHINEKOZ ESLEITZEKO PROPOSAMENA.

Udal Osoak 2010eko martxoaren 30ean egindako batzaraldian, “Lartzabal etxadiko urbanizazio proiektua” behin betikoz onartzea erabaki zuen.

Halaber, 2010eko apirilaren 28ko bilkuran udal Osoak aipatu proiektuan sartutako obrak jardunbide mugatu bidez kontratatzeke espedientea eta kontratua araupetzeko administrazio-baldintza zehatzen agiria eta teknikoena onartzea erabaki zuen eta esleipena egiteko jardunbideari hasiera ematea.

Lizitazioan parte hartu behar zuten enpresak aukeratzea onartu zen eta gonbidapenak bidali zitzaien eskaintzak aurkezteko epea emanez.

Epea amaiturik bost eskaintza jaso dira eta Kontratazio Mahaiak 2010/04/19an bilduta, proposamenak irekitzeari ekin zion. Udal Arkitekto Teknikoak dagozkion txostenak idatzi ditu, enpresen proposamenen balorazioen emaitza hurrengoa izan delarik eta Kontratazio Mahaiak, 20/06/25ean egindako bilkuran esleipen proposamena luzatu du:

Enpresak	1. IRIZPIDEA	2. IRIZPIDEA	3. IRIZPIDEA	4. IRIZPIDEA	5. IRIZPIDEA	GUZTIRA
	prezioa	obraren azterketa maila	epea	hobekuntzak	kalitatea	
URBYCOLAN + ELCOR	50,00	23,00	5,00	1	4,00	83,00
ANTZIBAR	50,00	12,00	2,50	1	4,00	69,50
AMENABAR	50,00	21,00	5,00	5	4,00	85,00
BRUESA	50,00	31,00	5,00	2	4,00	92,00
ORSA + SASOI	50,00	10,00	5,00	1	2,00	68,00

Gauzak horrela, Obrak eta Zerbitzuak Batzordeak, joan den 2010/06/25ean luzatutako diktamenaren arabera, Udalbatzari ondorengo erabakia hartzea proposatzen zaio:

1.- Bruesa Construcción S.A. enpresari behin behingoz esleitzea “Lartzabal etxadiko urbanizazio proiektua”n sartutako lanei dagokien obra-kontratua, 1.141.905,31 euroko kopuruan (BEZ barne) eta 6 hilabetetan egiteko, bere proposamena onuragarriena delako. Gastua Udal Aurrekontuetako 1 1001.622.313.91.01 partidaren kontura ordainduko da (A/1.0301.601.439.00.01).

2.- Aipatutako enpresak 49.220,05 euroko behin betiko bermea aurkeztu beharko du eta baldintza administratiboen 22. artikuluan adierazitako dokumentazioa aurkeztu beharko du 15 egun balioduneko epean, behin behineko esleipena kontratatzailearen profilean argitaratu eta



hurrengo egunetik kontatzen hasita. Epe hori igaro eta gero, eta aurkeztu beharrekoak aurkeztu baditu behin betiko esleipena egingo da hurrengo 10 egun baliodunetan, Alkatearen dekretu bidez.”

Proposamena onartu da aldeko sei botoekin (Etxeberria, Lekuona, Arrese, Viñas, Irastorza eta Bera j./and), aurkako hiru (OB) eta abstentziorik ez.

Eta horrela jasota gera dadin dagokion espedientean, ziurtagiri hau ematen da, azaroaren 28ko 2.568/1.986 Errege Dekretuaren 206 artikulua araberak Alkate Jna.ren On-Iritziarekin batera, Oiartzunen, bi mila eta hamarrekoko uztailaren batean.

